

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	LONJETAKO LANEN ANTOLAKETA ETA DOKUMENTUEN IZAPIDEAK EGITEA	Iraupena	40
		Espezifikoa	
Kodea	UF0823		
Lanbide-arloa	ITSAS ETA ARRANTZA-JARDUERAK		
Lanbide-eremua	Arrantza eta nabigazioa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Lonjen antolamendua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Lonjen kudeaketa	Iraupena	110
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Lokal, instalazio eta ekipoen antolaketa	Iraupena	70

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UF0288_3ko LB4 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Lonjako berezko lanak antolatzea, esleitzea, eta manipulatuzaileei banatzea, indarrean dauden arau higieniko-sanitarioak betetzen dituztela bermatuz, eta laneko arriskuak prebenitzeko legea betez.

E11.1 Manipulatuzaileek erabiltzen dituzten jantziak eta jantzi horiek nola zaindu behar diren deskribatzea, eragiketen osasun-egoera bermatzen lagun dezaketen arau higieniko-sanitarioak betetzeko.

E11.2 Langileek produktua manipulatzeko bitarte osoan zaindu behar dituzten ohituren zerrenda egitea, araudi higieniko-sanitarioa eta laneko arriskuak prebenitzeko legea bete ditzaten.

E11.3 Manipulatuzaileek lonja batean egin lezaketen jardueren zerrenda bat egitea, kasu bakoitzean dagokion jardueraren garapen sekuentziala zein den adieraziz.

A2: Mantentze-lan, gorabehera eta parte higieniko-sanitarioekin erlazioatutako dokumentuak aztertzea, osatzea eta izapidetzea.

E12.1 Araudia eta/edo kalitate-plana betetzeko behar diren mantentze-lan eta gorabehera mekanikoen dokumentuak eta parte higieniko-sanitarioak identifikatzea.

E12.2 Aurreko dokumentuak nola bete eta izapidetu behar diren azaltzea, araudia eta/edo kalitate-plana kontuan hartuta.

E12.3 Manipulatuzaileen edozein gorabeherari buruzko txostenetan jarri beharreko datuak deskribatzea, txostenak araudiaren eta/edo kalitate-planaren arabera osatu eta izapidetu daitezen, eskuz edo euskarri informatikoez baliatuz.

Edukiak:

1. Arau higieniko-sanitarioen aplikazioa elikagaien manipulazioan.

- Manipulatuzaileen higieua
 - Jantziak
 - Higieua-ohiturak.
 - Debekuak.
 - Higieua- eta manipulazio-jardunbide egokiak.
 - Higieua-neurri pertsonal eta instalazioetako higieua-neurrien eta arrainaren balio-bizitzaren luzapenaren arteko erlazioa.
- Elikagaien manipulazioaren arriskuak.
 - Lan horiei lotutako arriskuak.
 - Prebentzio-neurriak.
- Aplikatu behar den elikagaien inguruko legeria.

2. Lonjako dokumentazio-kudeaketa.

- Txostenak:
 - Mantentze-lanek.
 - Gorabehera mekanikoenak.
 - Manipulazioko edo manipulatuzaileen gorabeherenak.
 - Gorabehera higieniko sanitarioei buruzkoak.

3. Lonjako lan-arriskuen prebentzio-plana

- Lonjako jardueretan, oro har, kontuan hartu behar diren neurriak.

- Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legea.
- Prebentzioaren inguruko koordinazioaren aplikazioa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.

Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.

- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Lonjen antolamendua.